

Online Prestakuntza Unitatearen Ikasketa Plana:

GARAPENERAKO UNIBERTSITATE LANKIDETZA

UPV/EHUko Graduko ikasleentzako prestakuntza-proposamena

- Online prestakuntzaren iraupena: 6 aste
- Orduak: 37,5 ordu
- Ikastaroaren hizkuntza: gaztelania eta euskara
- Irakasle-taldea: UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoko langileak eta laguntzaileak

<https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna>

Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaz

1. Aurkezpena

UPV/EHU bere ingurunean errotu eta gizarte-konpromisoaren alorrean erreferentziazko eredu bihurtzea helburu duen unibertsitatea da. Horretarako, alde batetik, ikasleengan honako balio hauek sustatzen ditu: elkarlana, berdintasuna, pentsamendu kritikoa, sorkuntza eta gizarte-konpromisoa. Hala, herritar gisa behar duten prestakuntza integrala bultzatzen da. Beste aldetik, Irakasle eta Ikertzaileek (IIP) eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek (AZP) beren jarduera gizarte- eta etika-konpromisoaren ikuspegitik egitea sustatzen du.

Xede horretan aurrera egiteko asmoz, ezinbestekoa da elkartasun- eta lankidetzaz-balioetan prestatzea, unibertsitate-komunitatea osatzen duten talde guztien artean. Horixe da ikastaro hau antolatzearen arrazoia.

“Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaz” ikastaroaren helburua da zeharka txertatzea garapenerako lankidetzazko prestakuntza gure Unibertsitateko diziplina eta alor guztietan.

Ikastaroa eGELAPI (<https://egelapi.ehu.eus/>) plataforma birtualean egingo da eta honako elementu hauek izango ditu: gomendatutako irakurketak, bideoak, webguneetarako estekak eta hainbat formatutako hausnarketa-jarduera, baita garapenerako lankidetzazaren hainbat alderditan sakontzeko material osagarria ere.

Ikasketa-plan honek honako atal hauek ditu:

1. Aurkezpena	orr. 2
2. Trebetasunak	orr. 2
3. Helburuak	orr. 3
4. Edukiak	orr. 3
5. Lan-metodologia	orr. 4
6. Lan-plangintza	orr. 4
7. Ebaluazioa eta egiaztagiria	orr. 11
8. Egutegia	orr. 11

Ikastaroa gradu eta graduondoko ikasketak egin eta Garapenerako Unibertsitate Lankidetzazari ekin nahi dioten ikasleei zuzenduta dago, baita alor horretan aritzeko nahia duten unibertsitateko irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileei zuzenduta ere.

2. Trebetasunak

Ikastaroa amaitzean, parte-hartzaileek **honako trebetasun hauek** lortzea espero da:

1. Errealitate sozialaren eta garapen-prozesuen inguruko ikuspegi kritikoa izatea, tokiko mailan zein nazioarte mailan.
2. Jarrera solidarioa erakustea, baita tokiko zein munduko herritarren bizi-baldintzen eraldaketan konpromisoa azaltzea ere.
3. Unibertsitatean eta hurbileko ingurunean garatutako garapenerako elkartasun eta lankidetzako esperientziak eta jardunbide egokiak identifikatzea.

3. Helburuak

Ikastaroak honako **ikaskuntza-helburuak** ditu:

1. Garapenerako lankidetzaren jatorria, sorreraren arrazoiak, azken hamarkadetako bilakaera eta elkartasunaren egungo erronkak deskribatzea.
2. Garapenerako lankidetzak egun duen zentzuaren inguruan hausnartzea.
3. Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak ezagutzea, baita gure gizartearentzat dituen eraginak ere.
4. Politika publikoek eta Garapen Iraunkorrerako Helburuek bat egiteak duen garrantzia ulertzea.
5. Garapenerako lankidetzaren eragile instituzional eta sozialak identifikatzea, baita abian dauden lankidetzak tipologiak eta eskuragarri dauden tresnak identifikatzea ere.
6. Unibertsitateak garapenerako lankidetzan duen funtzioa ezartzea, baita horren berezitasunak, eragileak eta potentzialtasunak ere.

4. Edukiak

Ikastaroaren edukiak hiru gai-modulutan egituratzen dira, eta bertan edukiak jarraian azaldu bezala banatuko dira:

➤ 1. modulua - Garapenerako Lankidetzak: iragana, oraina eta etorkizuna

- 1.1. Garapenerako lankidetzak: jatorria eta bilakaera
- 1.2. Garapenerako Lankidetzak gaur
- 1.3. Garapena Iraunkorrerako Helburuak eta 2030 Agenda
- 1.4. Koherentzia garapenerako politiketan.

- **2. modulua - Garapenerako Lankidetzaren eragileak, tresnak eta tipologiak**
 - 2.1. Garapenerako Lankidetzaren agenda internazionala
 - 2.2. Herritartasun Globalerako Hezkuntza
 - 2.3. Garapenerako Gobernu Kanpoko Lankidetzako eragileak Euskadin

- **3. Modulua - Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GUL)**
 - 3.1. Unibertsitatearen funtzioa Garapenerako Lankidetzan
 - 3.2. GULren eragileak eta jardueren tipologiak.
 - 3.3. Unibertsitate-prestakuntza garapen eta lankidetzari dagokienez. Garapenerako Lankidetzako Gradu amaierako lanak eta praktikak: Gaztenpatia proiektua.

5. Lan-metodologia

Ikastaro hau UPV/EHUko unibertsitate-komunitate osoari zuzenduta dagoenez (edozein gradu-ikasketa eginda ere, edozein ikasgaiaren irakasle izanik ere, lan egiten duten zerbitzua edota aurretiazko ezagutzak edozein direla ere), ikastaroan zehar proposatutako jardueretan parte-hartze gogotsua erakustea espero da, bereziki, eskainitako edukien inguruko hausnarketa sustatzeko diseinatu diren horietan eta, noiz edo noiz, bereganatutako ezagutzen autoebaluazioa egitean.

Ikastaroa aurkezpen-bideo batekin hasiko da, eta bertan azalduko dira ikastaroaren ezaugarriak eta lan-metodologia, baita gutxi gorabeherako lan-plangintza ere. Bideo horren ostean, parte-hartzaileek hiru gai-moduluei ekingo diete. Egelapi lan-ingurunean honako elementu hauek aurkituko dituzte, gai-moduluak garatzeko: ikus-entzunezko materiala, jorratutako edukien inguruko testuak, diagramak eta webguneetarako estekak.

Ikastaroan eskainitako edukien inguruko jarrera gogoetatsua sustatzeko asmoz, azpimodulu bakoitzaren amaieran parte-hartzaileen egin beharreko hainbat ataza izango dituzte. Parte-hartzaileen ikaskuntzari laguntzeko, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoko langile eta laguntzaileek parte-hartzea dinamizatu eta jarraipena egingo diote foro eta atazen entregetan.

6. Lan-plangintza

Lan-plangintza hiru modulutan egituratzen da, modulu bakoitzak lau azpimodulu ditu eta edukien zerrendan deskribatu dira (ikus 4. atala). Azpimodulu bakoitzaren lan-plangintzaren baitan oinarrizko dokumentuen irakurketa, bideoak ikustea edota gomendatutako webguneetara jotzea aurki daiteke, eta ataza bat edo hainbat egitea proposatzen da; batzuk derrigorrezkoak dira eta beste batzuk hautazkoak. Gainera, azpimodulu bakoitzean mota anitzeko baliabide osagarriak eskaintzen dira, jorratutako gaiaren inguruko ezagutzak areagotzeko.

Jarraian, modulu eta azpimodulu bakoitzaren berariazko helburuak, jorratuko diren edukiak eta proposatzen diren atazak deskribatzen dira. Oinarrizko baliabideen eta baliabide osagarrien aipamenak azpimodulu bakoitzaren unitate didaktiko bakoitzean zehazten dira.

1. modulua - Garapenerako Lankidetzaren iragana, oraina eta etorkizuna

1.1 AZPIMODULUA - GARAPENERAKO LANKIDETZA: JATORRIA ETA BILAKAERA

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako lankidetzaren sortzearen faktoreak identifikatzea, baita azken hamarkadetan horren bilakaeran eragina izan duten faktoreak identifikatzea ere. Azken hamarkadetan nazioarteko lankidetzaren gidatu duten paradigma ezberdinen inguruan hausnartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako lankidetzaren sorreraren testuingurua eta arazoak. Garapenerako Lankidetzaren bilakaera azken hamarkadetan. 	<p><u>1. ATAZA:</u> "Paradigmak" testa.</p>

1.2 AZPIMODULUA - GARAPENERAKO LANKIDETZA GAUR

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako lankidetzaren egungo oinarriko printzipioak eta aurre egin beharreko erronkak ezagutzea. Garapenerako lankidetzaren egun duen zentzua balioestea. 	<ul style="list-style-type: none"> Elkartasuna eta Garapenerako Lankidetzaren gaur: zertarako, nola eta norekin aritu lankidetzan. 	<p><u>2. ATAZA:</u> "Garapenerako lankidetzaren printzipioak" testa.</p>

1.3. AZPIMODULUA - NOLAKOA IZAN BEHAR DA LANKIDETZA ETORKIZUNEAN?

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Giza garapen bidezkoago, berdinzaleago eta iraunkorrago baterantz egiteko aukera gisa ikustea 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH). 2030 Agenda eta GIHak lotzea garapenerako lankidetzaren esparruarekin eta etorkizunarekin. Identifikatzea eta partekatzea zer modu dauden 2030 Agendan eta GIHetan planteatzen den konpromiso bateratua gure egunerokoan txertatzeko. Deskribatzea gure unibertsitatea 2030 agendarekin konpromisoa adierazteko aprobatutako plana: EHUagenda 2030 garapen iraunkorriekin 	<ul style="list-style-type: none"> Agenda 2030 eta GIHak: lortutako akordioak, konpromisoak eta aukerak. 2030 Agenda eta GIHak garapenerako lankidetzaren marko eta etorkizun gisa. 	<p>3. <u>ATAZA</u>: "Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak" testa</p> <p>4. <u>ATAZA</u>: "GIHekin konektatzen" foroa.</p>

1.4. AZPIMODULUA - POLITIKEN ETA GARAPENAREN ARTEKO KOHERENTZIA

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako Politiken Koherentziaren (GPKren) esanahia eta dimentsioak deskribatzea. Egungo politiken eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIHen) arteko koherentzia aztertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako Politiken Koherentziaren (GPKren) garrantzia. GPKren dimentsioak eta ikuspegiak. GPK lankidetzaren deszentralizatuan 	<p>5. <u>ATAZA</u>: "Izan gaitetzen koherente" foroa.</p>

2. modulua - Garapenerako Lankidetzaren eragileak, tresnak eta tipologiak

2.1. AZPIMODULUA - GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SISTEMA

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako Lankidetzaren sistemaren egungo osagai nagusiak aztertzea. Garapenerako lankidetzaren Euskadiko eragile eta sektoreak bereiztea. 	<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako Lankidetzaren eremuak, modalitateak eta tresnak. Garapenerako lankidetzaren Euskadiko eragile eta sektore motak. 	<p>6. <u>ATAZA</u>: "Garapenerako lankidetzaren motak" testa.</p>

2.2. AZPIMODULUA - HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako Hezkuntzaren jatorri- eta bilakaera-prozesuak aztertzea. Garapenerako Hezkuntzak mundu bidezkoago eta iraunkorragoa lortzeko aktiboki konprometitu den herritartasun globala eraikitzen nola laguntzen duen balioestea. Gure moduko gizarte aberatsetan bizi garenok txirotutako herrialdeekin pertsona solidarioak izateko betebeharrak dugula ulertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako Hezkuntzaren (GHren) jatorria. Garapenerako Hezkuntzaren belaunaldiak. Herritartasun Globalerako Hezkuntza: helburuak, irismena. HGHren jardueren tipologia: sentsibilizazioa, prestakuntza, komunikazioa, bidezko merkataritza, eragin politikoa, mobilizazioa, etab. 	<p>7. <u>ATAZA</u>: "Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren Ekintzak" testa.</p>

2.3. AZPIMODULUA - GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO LANKIDETZAKO ERAGILEAK EUSKADIN

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> • Euskal lankidetzaren testuinguruan lankidetzaren deszentralizatuaren funtzioa definitzea. • Gobernu Kanpoko Garapenerako Lankidetzaren nortasuna, lan-eremuak eta antolaketa aztertzea. • Lankidetzaren alorreko eragile berrien lana (herri-mugimenduak, sindikatuak, talde feministak, etab.) eta gure inguruneko Garapenerako GKEak ezagutzeko. • Garapenerako lankidetzaren alorreko proiektu tipologia anitzak bereiztea. • Garapenerako lankidetzaren alorreko proiektu bat definitzen duten oinarritzko ezaugarriak zehaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkartek (GGE). • Lankidetzaren alorreko eragile berriak: herri-mugimenduak, sindikatuak, talde feministak, etab. • Lankidetzaren proiektu bat definitzea. • Lankidetzaren proiektuen tipologia: hezkuntza alorrekoa, osasun alorrekoa, teknikoak, genero-berdintasuna, produktiboa, laguntza humanitarioa, elikagai laguntza, etab. 	<p>8. ATAZA: "Lankidetzarako GKE eta proiektu bat: nirea!" ekintza</p>

3. modulua - Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GUL)

3.1. AZPIMODULUA - UNIBERTSITATEAREN FUNTZIOA GARAPENERAKO LANKIDETZAN

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitatea garapenerako lankidetzako eragile gisa aitortzea. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GULen) berariazko ezaugarriak deskribatzea. Garapenerako Lankidetzaren alorreko Unibertsitateen Jokabide Kodea alor horretako dokumentu-marko gisa balioestea. 	<ul style="list-style-type: none"> Balio solidarioetan prestatzea: unibertsitatearen helburua GUL: berariazko ezaugarri eta eragileak dituen jardueraren alorra. GULEk Garapenerako Lankidetzari egiten dizkion ekarpenak. 	<p><u>9. ATAZA:</u> "Unibertsitateek Garapenerako Lankidetzaren alorrean duten Jardunbide Kodea" ekintza</p>

3.2. AZPIMODULUA - GUL-REN ERAGILEAK ETA JARDUERA TIPOLOGIAK

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateak garapenerako lankidetzarako eragile gisa duen funtzioa balioan jartzea. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GULren) jarduerak identifikatzea. UPV/EHUko unibertsitate-komunitateak garatutako GUL proiektu batzuk ezagutzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak Beste unibertsitateak indartzeko proiektuak. Laguntza tekniko eta garapenerako proiektuak beste herrialdeetan. Herritartasun Globalerako Hezkuntzako jarduerak. 	<p><u>10. ATAZA:</u> "Garapenerako lankidetzaren jarduerak unibertsitatean" testa.</p>

3.3. AZPIMODULUA - GARAPENERAKO UNIBERTSITATE PRESTAKUNTZA. UPV/EHUREN GRADU AMAIERAKO PRAKTIKA ETA LANEN PROGRAMA, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREAN: GAZTENPATIA PROIEKTUA.

Helburua	Edukiak	Atazak
<ul style="list-style-type: none"> • Elkartasun eta lankidetzako gaitan prestatzea unibertsitateko ikasleen prestakuntza integralaren baitako ezinbestekoa dela ulertzea. • UPV/EHUk gradu eta graduondokoetan garapenerako lankidetzan eskaintzen duen prestakuntza identifikatzea. • UPV/EHUk garapenerako lankidetzaren alorrean jarduera akademikoak egin nahi dituztenentzat eskaintzen dituen aukerak identifikatzea. • UPV/Prestakuntza-jarduera horietan parte hartzea positiboki balioestea, izan zentzu akademikoan, zein jarrera solidarioen inguruan sentsibilizatu eta sustatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Graduetako prestakuntza: garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak • Graduondotako prestakuntza: garapenari eta lankidetzari buruzko master eta doktoregoak. • Elkartasun- eta lankidetzajarduerengatik hautazko kredituak aintzat hartzeko programa, UPV/EHUko ikasleei zuzenduta. • UPV/EHUren Gradu Amaierako Praktika eta Lanen Programa, Garapenerako Lankidetzaren alorrean. • Gaztenpatia programa. 	<p><u>11. ATAZA:</u> "Eta zer egin dezaket nik?" foroa</p>

7. Ebaluazioa eta egiaztagiria

Azpimodulu etako derrigorrezko eta hautazko atazen helburua da parte-hartzaileek Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren alorrean sakondu eta trebetasun analitikoak garatzea, beren inguruneko errealitatearen zein maila globalean gertatzen diren egoeren inguruan.

Ikastaroa gainditu eta dagokion egiaztagiria jasotzeko, beharrezkoa izango da **modulu bakoitzaren foro orokorrean ekarpen aberasgarriak egitea eta proposatutako derrigorrezko atazen % 70, gutxienez, gainditzea.**

Ikastaroa gainditzeko duten graduako ikasleek hautazko 1,5 kreditu baliozkotzeko eska dezakete. Graduako ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko arautegiaren 11.4 artikulua araberak, Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren arabera (EHAA, 2012ko ekainaren 19ko 119. zenb.), posible da hautazko kredituak lortzea prestakuntzarako kultur ekintzengatik (Ikastaroak, mintegiak, kongresuak, etab.) Unibertsitateko Errektoreordetzek antolatutakoak. Jarduera mota horientzat, 25 ordu bakoitzeko kreditu bat baliozkotzea ezarri da. Hala, UPV/EHUko ikasleek ikastaro hau gainditu ostean ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute, horretarako zehaztutako epearen barruan, izena emana duten Zentroko Idazkaritzan, behin dagozkion izapideak egin eta prezio publikoak ordaindu ostean, kreditu horiek beren espedienteetan txerta daitezke.

8. Egutegia

Jarraian, azpi-modulu bakoitzerako aurreikusitako arduraldi-denbora eta ikastaroaren data nagusiak zehazten dira (hasiera-data ezartzean zehaztuko dira). Ikastaroaren iraupena 6 astekoa izango da, 2024ko urriaren 14tik azaroaren 22ra.

Jarduera	Aurreikusitako iraupena	Hasiera-eguna	Amaiera-eguna
Ikasturtearen hasiera		Urriak 14	
1. modulua	11 ordu 30'	Urriak 14	Urriak 25
1.1. azpimodulua	2 ordu		
1.2. azpimodulua	2 ordu		
1.3. azpimodulua	3 ordu		
1.4. azpimodulua	4 ordu 30'		
2. modulua	10 ordu	Urriak 25	Azaroak 8
2.1. azpimodulua	2 ordu 30'		
2.2. azpimodulua	2 ordu 30'		
2.3. azpimodulua	5 ordu		
3. modulua	16 ordu	Azaroak 8	Azaroak 22
3.1. azpimodulua	4 ordu		
3.2. azpimodulua	5 ordu		
3.3. azpimodulua	7 ordu		
Ikasturtearen itxiera		Azaroak 22	
Guztira	37,5 ordu		